

## Kostuen egitura

Gure negozioak hasiera batean ez du inbertsio handirik eskatzen.

Sortu berri den enpresa denez, erabiliko dugun instalazioaren kostua baxua izango da hasiera batean. Instalazioaren zuzendariarekin hitz egin eta hilean irabazitakoaren %20a ordaintzeko prest gaudela adieraziko diogu instalazioa eta honek dakartzan kostu guztien truke: argia, aire egokitua, berogailua... Ordainketa estrategia honek, negozioa ondo dijoan bitartean asko ordaindu beharko dugu baina negozioa gaizki dijoanean, instalazioaren kostua ez da hain handia izango. Honen bidez, etorkizun batean etorri datorkigun krisi ekonomikoaren eragina murriztuko dugu.

Irabazitakoaren %10a zerbitzuetan eskaintzen ditugun materialak hobetzeko, berritzeko... bideratuko ditugu. Ordenagailuak, mahai jokoak, mugikortasuna lantzeko materialak etab.

Irabazitakoaren %50a langileek eskainitako zerbitzuak ordaintzeko erabiliko dira eta geratzen den %20a aurreztu egingo dugu. Aurrezteak etorkizun batean enpresak gastu asko dituenean sortu ditzaken arazoak murriztuko ditu.